

5. Kasu praktikoa

Bizirik Beti SA (BIBESA) 2010ko otsailak 2an eratu zuten Olasagasti anai-arrebek. Baltzuak zahar egoitzen ustiapena du objektu bezala eta Donostiako Lasarte Emparanza, 2an bere egoitza. 2010ko apirilean inskribatu zen merkataritzako erregistroan, 1.900.000 €ko kapitalarekin. Akzio guztiak berdinak dira, eramailearenak, eta 1.000€ko balio nominalekoak.

Akzioak harpidetzerakoan honako banaketa egin zuten Olasagastitarrak:

Martinek eta Josebak 570 akzio harpidetzen dituzte, bakoitzak kapitalaren % 30a. Irantzuk 475 akzio harpidetzen ditu (%25) eta Jonek 285 (%15). Eraketa unean egiten dira ekarpen guztiak salbuespen batekin. Martinek ez diruzko ekarpen bat egiten du (lokal bat) baina dagokion ekarpenaren %50ra iristen dena. Beste erdia beranduenez bi urte pasa ondoren egin beharko delarik estatutuen arabera.

Gestioa administrazio kontseilu baten esku uzten da, bazkide fundatzaile guztiak administratzaile izango direlarik.

Gaur egun hiru bazkide fundatzaile mantentzen dira baltzuan Martin ehiza istripu batean hil baitzen 2011ren uztailean. Bere akzioak, jabekidetzara eraentzan, bere alabenak (Lucia eta Clararenak) dira orain.

Pasa den azaroaren 18an kontseiluak jarduera Tolosara luzatzea erabaki zuen, horretarako bertako lokal bat erosteko akordioa hartuz. Lokal horrek 600.000 €ko prezio du eta erosi ahal izateko Kutxarekin 400.000 €ko mailegu bat negoziatu eta lortzen da.

Irantsu Olasagasti ez dago egin nahi denarekin ados uste duelako estrategikoki apustu arriskutsuegia dela. Sektorea une kritiko batean dago zalantzan sortu direlako dependentzia legean jasotako laguntzen iraupenarekin eta orokorrean zor berriak gain hartzeko unea ez delako. **Zer egin dezake Irantzuk akordio horren aurka?**

Lucia eta Clara Parisen bizi dira eta ez dute harreman gehiegirik bere osaba izebekin. Denon Laguntza S.L. baltzuarengandik eskaintza bat jasotzen dute beraien akzioak erosteko eta saldu egiten dituzte. Baltzu honen objektua

zaharrei berain etxeetan laguntza eskaintzean datza, janaria eramanaz, garbiketa zerbitzuak emanaz, enkarguak egiten lagunduaz, e.a. Akzioak erosten dituztenetik DL, S.L. baltzuaren administratzaileak jakin arazten dio BIBESari, legeak ematen dio aukera erabiliaz, bere kontseiluan administratzaile bat izendatzeko asmoa duela.

Bitartean Kutzara iristen da dokumentazioa non frogatzen den BIBESA baltzuaren administratzaileek ez diotela informazio fidagarria eman mailegua negoziatzerakoan. Kutzak beraz mailegua eman du enpresaren egoera erreala ezagutu gabe. Eta hasieratik izan ditu arazoak amortizazio kuotak kobratzeko. Bertan aztertzen ari dira ea administratzaileei erantzukizuna eskatzeko biderik dagon, beharrezkoa balitz. **Aipatu ezazu zein izan daiteken bide hori.**

Administratzaileek zailtasun ekonomikoak geroz eta handiagoak izanik erabaki dute egin gabeko ekarpena galdatzea eta Luciar eskatzen diote bere aitak agindutako ekarpenaren %50ren betetzea. **Luciak harriturik, bera ez delako jadanik bazkide, jakin nahi du ordaintzeko obligazioa duen eta, horrela balitz, errekuperatu dezaken ordaindutakoa.**

Apirilak 1ean batzar orokorra bildu behar da urteko kontuak eta kudeaketa txostena onartzeko besterik beste eta alde zuzenetik Joseba, Jon eta Irantzu biltzen dira hainbat puntu adosteko. Ez zaie batere gustatu familiatik kanpoko bazkide berrien sarrera eta etorkizunerako sarrera berriak galarazi nahi dituzte. Bestalde ez dute nahi Denon S.L. baltzuaren inor nahi administrazio kontseiluan. Erabakitzen dute beraz alde batetik estatutuen aldaketa baten alde bozkatzea akzioen eskualdagarritasuna mugatuaz eta beste batetik administrazio kontseilua hiru kideetara mugatzea.

Batzarrean lehenengo akordio bozkatzerakoan D.L. S.L. eta Irantzu kontra bozkatzen dute eta, beraz ez da onartzen estatutuen aldaketa hori. **Aztertu zer ondorio dituen Irantzuren akordio hausteak. Eta alde bozkatu balu, ikusten duzu argumenturik akordio hori aurkatzeko?**

D.L. S.L.k izendatu du kontseilu kide bat, baina batzarrean bertan kargugabetua izan da bere kontratu botoarekin. **Badu Denon S.L. baltzuak akordio hau aurkatzeko biderik? Non oinarrituz?**